

Itsaso bete memoria

Irati Majuelo

Ahantzuraren eta gogorapenen, zaintzaren eta absentiaren, galeraren eta edertasunaren koordinatueta dabil Mikel Etxabururen azken lana, olatuen artean kulunkatzen. Amari eta amaren inguruan idatzitako poemak dira, memoria galtzen ari dela eta, haren prozesuaren inguruko gogoetak, irudiak eta oroitzapenak biltzen dituelarik. Ezin ezkuta daiteke idazlearen mina, are etsipena sarritan, ama zaintzeko babes oro eman, eta hala ere, atzerabuelarik gabeko bidean aurkitzen baitu bere burua. Bide horretan idatzitako poesia da liburuak jasotzen duena.

Horren haritik, ezin uka sentibiltate handi batek biltzen duela bilduma osoa, delikatua da Etxabururen idazkera. Hiru ataletan banatuta, lehendabizikoak

(Post-itatik pareta zurian) amaren memoria berreskuratzeko lanak eta gaitzaren lehen inpre-



'Ahaztu aurretik, ama'

Idazlea: Mikel Etxaburu.
Argitaletxea: Pamiela.

sioek gidatzen dute, lirikotasun ongi landu batez bustiz poema gehienak. *Mara-mara* bigarren atalean, ordea, etsipen sentimendua nagusitzen doala esan daiteke, eta tonu ilunago bat hartzen duela idazkerak, nahiz eta badauden liburu osoan zehar esperantzarako deiak, itsasargi txikiak dirdirka. Azken atalak bide gehiago irekitzen dizkio argiari, mina egon badagoen arren, onarpenak goxatzen baitu unean uneko bizialdia. Bidaia batean murgiltzen da, beraz, idazlea, eta harekin batera irakurlea.

Bereziki ederrak dira poetaren beraren oroitzapenetatik abiatzen diren poemak, ama memoria galeraren aurreko garaian kokatzen dutenak, ahantzuratik haragoko bizi bat gorpuztuz. Halaber, eguneroko gertakari, ohi-tura eta keinuetan oinarritutako aleek beste kolore bat eskaintzen diote bildumari, amasa ematen diote metafora eta metafora artean. Edertasun, min eta maitasun egiatienak egunean eguneko etxekotasunean daudela transmititzen dute.

Alabaina, esanguratsuena da, hiru ataletan zehar, poema

gehienak itsasoaren eta memoriaren iruditerietan mugitzen direla. Interesgarria da oso nola uztartzen dituen bi munduak, metafora horretan gauzatzen baitira joko liriko gehienak. Egia da agian zenbaitetan errepikakor gerta daitekeela, poema bera irakurtzen ari bagina bezala, lerro-arte desberdin batetik hasita. Itsasoaren irudi guztiak poema bakarrean kondentsatuko balira bezala. Akaso, horretan datza ahanztura, etengabe bariazioz bariazio errepikatzean irudi berbera. Illo horretan, idazleak berak ohartarazten du, ez dago soluziobiderik poesian: «nazkatu naiz metaforen eta adjektiboen zurikeriaz/ hitz biribilen disimuluaz eta/ ondo jositako esaldien diktaduraz/ [...] ez dut ausentzia disimulatuko/ metaforarik gabe bizitzea izango da niretzat erronka».

Izan ere, poema-bilduma hau, finean, maitasun kantu bat da, Etxaburuk amaren belarrira xuxurlatutakoa: «baina ama,/ zein eder den zure begien mintzoa/ orain eta hemen baizik ez zaudenean/ isilik/ datorren bezala badoan brisa arina zaren».

Konposizio poesia

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Poesia liburu bat dugu esku artean, *Barruko hotsak* eta beste soinu txiki batzuk izenekoa.

Azal gogorrek liburu luzanga da (25x16 cm), ehun eta hogei orrialdekoa, hamar ataletan banatuta dagoena.

Obran azzaltzen diren poema guztiak egituratuta daude egun baten bueltan: jaiki, garbitu, gosaldu, eskolako bidea hartu, hango zereginak egin, etxera buelta, afaldu eta lotara. Gutxi-asko, eskola ume batek errutinaren erritmoan egunero bizi dituenak.

Hasierako atalak seina poema-ekin garatzen dira, etxetik abiatu artekoak deskribatzen. Hurrengo atalak olerki gehiago-koak dira –hamabi aleko pare bat atal daude liburuaren erdiko gontz lana egiten–, eta amaiera-koek, etxerako itzuleran, seiko

poemen erritmoa berreskuratzen dute.

Liburua hasi eta buka, ni poetiko garbi bat hizketan bezalaxe ari zaio irakurleari, unerik une egiten dituenak azaltzen, obra osoa zeharkatzen duen tonu naif batean. Esaterako, liburuko lehen olerkia hau da: «Nire barruko animaliak/ nirekin esnatzen dira./ Kukurru-kuuuuuuuuuuuu! / Iratzargailuan zortziak dira./ Buru gaineako kalparra/ harrotzen hasi da».

Bereziki poesiaren alde bisuala, fonikoa eta espaziala lantzen da. Sarri-sarri onomatopeiak erabiltzen dira lantegi honetarako. Ugariak *klin-klin, glu-glu, tik-tok, sshsshss...* bezalakoak dira; olerkiaren barruan dagokien lekuan agertzen dira, grafikoki testutik apartatzen bai tamainaren, bai kokapenaren, bai bestelako baliabideen bidez (difuminatuak, tipografia aldaketak...). Soinuaren eta esanahiaren jolas honetan dena ez da onomatopeia ordea, tarteka agertzen dira-eta ezaugarri bereko hitz eta esaldiak ere: «txiiiiiiii...za!» (txiza zarrastara baten irudia osatzen letrekin), «errata pasatzen» (letrak elkarren kontra).

Hasierakoetan irriari lotutako olerkiak aurkituko ditu irakurleak. Esnea bero dagoela, zerealen

zarata dela... irribarretxo konplizea atera nahian. Eskolako olerkietan tonua hunkiberagoa da, beste emozio batzuetara pasata, introspektiboagoak («Buru aputzen nabil/ krik krik, krik krak/ intxaur eskola bezala./ Beti ez da erraz bereizten/ mamia eta azala»), edota maitasunekoak («Musu guztiek ez dute kolorebera/ puxika gorri baten eztanda/ izan behar zurea»), besteak beste.

Ezaugarri komuna dute poema guztiak: ni poetikoak apenas du interakziorik inguruarekin, irakurleari ari zaio barne mundua erakusten.

Promoziorako iragarkietan Leire Bilbao - Maite Mutuberria tandemaren *Xomorropoema* eta beste *piztia batzuk* sariduna aipatzen da aurrekari bezala, baina egileak ekar lezakeen parekotasunetik aparte, beste obra batzuk gertuago daude. Batetik, boz gora irakurri ezin diren olerkiak direlako, saridunaren kontrara, eta alde honetatik Iñigo Astizen *Joemak* eta *polasak* askoz gertuago dagoelako, esaterako. Baina antzekotasun bila aritu nahi balu norbaitek aurrekari zintzoagodu Joxantonio Ormazabal handiaren *Hitzak jostailu*, hots eta grafia jolasetan, zein naiftasunean.



'Barruko hotsak'

Idazlea: Leire Bilbao.
Ilustratzailea: Maite Mutuberria.
Argitaletxea: Pamiela.

